



Iragarkia ALDATZEKO

Udalbatzak 2017ko martxoaren 2an egindako bilkuran hasierako onespena eman zion Altzagako gazte txokoaren araudiari. Onarpenari dagokion espediente adegazioetarako jendaurrean utzi zen (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA 55 alea, 2017ko martxoaren 20koa, eta ediktuen oholean) eta inork ez duenez alegaziorik aurkeztu, araudia behin betiko onartutzat ematen da eta, Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 70.2 artikulua eskatu bezala, behar den zabalkundea ematen zaio.

ALTZAGAKO GAZTELEKUAREN ARAUDIA

ARAUTEGIA

Elkartzeko, bilerak egiteko, Ikasteko, aisialdiko jarduerak eta ekintzak egiteko udalak antolatutako plangintza jarraituz

ERABILTZAILEAK

Gazte-lekua Altzagako 10 urtetik 18urte bitarteko nerabe eta gazteei zuzendutako udal zerbitzua da. Elkargune bat da, gazteek euren eskakizunak eta ekimenak sortu eta garatu ahal izateko.

Altzagako udalak gazteen esku jartzen duen ekipamendua da, gazteen intereskoak diren jarduerak garatzeko eta horientzako baliabide ezberdinak eskaintzeko: Altzariak, aldizkariak, argitalpenak, jokoak...

Gazte-lekua Altzagan erroldaturik dauden eta eskaera eta sarrerako fitxa eskuratu duten 10 urtetik 18urte bitarteko nerabe eta gazteek erabili ahal izango dute. Eskaera egitea beharrezkoa izango da (Udalean eskaera orria betez).

[Altzagan erroldatuak dauden haur-nerabeek eskubidea izango dute, herrikoak ez diren beraien lagunen bat gazte lekura ekarri ahal izateko. Horrela bada, udaletxeari jakinaraziko diote beraien eskaera egitean.](#)

Gazte-lekuan erabiltzaileen erregistro orri bat egongo da, derrigorrezkoa izango da, espazioa erabiltzean bertan egondakoen erregistroa egitea. Hau da, erabilpena egiten den bakoitzean txartelarekin fitxatu egin behar da, eta erabilpen fitxa beteko da, izen-abizenak, sarrera eta irteera orduak ezarriz.



SARBIDEA

Doako zerbitzua eta sarbide librea da erabiltzaileentzat, udalak erabakitako ordutegian erabili beharko dena.

Eskaera egiten duen erabiltzaile bakoitzari giltza edo irekitzeko txartela emango zaio. Eskaera egitea ezinbestekoa da txartela izateko. Horretarako gazteek udaletxera etorri beharko dira, guraso edo arduradunen batekin, eta erabiltzaile txartela jasotzeko arautegi hau onartzen dutela jasotzen eskaera idatzia sinatu.

Eskaera udalak prestatutako eredu normalizatuan egin beharko da. Lehen giltza dohain emango da.

Gazteek 18 urte betetzen dituztenean txartela itzuli egin beharko dute. Gazte hauek "Artea Elkarte"an sartzeko aukera izango dute 18 urte betetzen dituztenean.

Lokalean inor ez bada gelditzen kanpoko atea itxita geratzen dela bermatu beharko da.

Giltza galduz gero, lehen bailehen horren berri udaletxean eman beharko da. Giltza berriaren kostua bere gain izango da.

ORDUTEGIA

Irailaren 15etik- ekainaren 1era:

IGANDETIK- OSTEGUNERA: 10:00etatik- 21:00era

OSTIRALA- LARUNBATA: 10:00etatik- 00:00etara.

***Ostiral eta larunbatetan, 22:00etatik aurrera isiltasuna bermatu beharko da.**

Ekainaren 1etik- abuztuaren 31ra:

ASTELEHENTIK- IGANDERA: 10:00etatik 00:00etara.

Herriko festetan ordutegi librea egongo da.

Udalak eskubidea dauka ordutegiak eta jarduerak aldatzeko, betiere denen onerako bada eta gainerako udal jardueren funtzionamendu egokia bermatzeko bada.

ERABILPEN ARAUAK



Erabiltzaileek errespetuzko eta duintasunezko tratua izan beharko dute, bai gazte-lekuko gainerako parte hartzaileekiko eta baita bertan sartzen den edozein pertsonarekiko ere.

Zerbitzu honen erabiltzaileak instalazioen, ekipamenduen eta Gazte- lekuko gainerako materiala zaindu beharko ditu, eta berauek gaizki erabiltzetik sor daitezkeen hondatzeak saihestuko ditu.

Erabilpenak irauten duen denbora horretan, aretoaren erantzukizuna erabiltzailearena izango da, bertan daudela edozein kalte gertatuta ere. Erabilpena amaitu ondoren lokala jasota eta txukun utzi behar da, hasieran zegoen eran utziz. Erabilpena egiterakoan antzemandako edozein gertaeraren berri, erabilpen fitxan idatzi beharko da. Fitxan ez bada inolako gertaeren berri ematen, lokala egoera onean zegoela ulertuko da. Larrialdi kasuetan, horren berri udal ordezkariari emango zaio, ahalik eta lasterren horretarako ezarriko den larrialditarako telefonora deituz. [UDALETXEKO TELEFONOA](#)

Lokalean ezingo da erre, ezta ere alkoholdun edaririk kontsumitu. Gazte-lekuan onarturik ez dauden ekintzak ezingo dira burutu.

Norberaren gauzak zaintzea gomendatzen da, Gazte-lekuak ez ditu bere gain hartuko lapurretak eta galerak.

Gazte-lekuan liskarrak edo kalteak eragiten dituzten erabiltzaileek edo gainerako erabiltzaileekiko eta langileeko behar den errespetua agertzen ez bada, Altzagako udalak egoki ikusten diren neurriak hartuko ditu, gazte lekuko funtzionamendu egokia bermatzeko.

Udalak edozein momentutan egin dezake ezusteko bisita.

HORNITUA

Udalak gazte-lekuko ekipamenduaren inbentarioa egingo du eta urtero egokituko da, hornitzen diren ondasun eta materialen arabera.

GARBIKETA

Eskatzaileak arduratuko dira lokalaren garbiketaz: Erabiltzen den bakoitzean lokala txukun eta erabilitakoa jasota utzi behar da. Sukaldeko txokoa eta komunak ere txukun "garbi" mantenduko dira. Zaborra erabiltzaileek aterako dute eta ondo bereiztuko beharko dira zaborrak. Garbiketarako produktuak behar badira udaletxean eskaera egin beharko da. Garbiketa sakona egiteaz udala arduratuko da.



ESPAZIOAREN MANTENUA, ZAINZA

Eskatzaileen ardura izango da, instalazioa eta bertako hornikuntza egoki erabiltzea. Ikusten diren matxura, kalte edo gorabeheren berri udalean jakinarazi behar da ahal den azkarren.

Zerbitzuaren erabiltzaileek ondo zaindu beharko dute lekua, eta bertan dagoen ekipamendua, kalterik baldin balego, kalteak egin dituenak ordaindu beharko du konponketa edo berria erosteak dakarren kostua (konpontzeko aukerarik ez balego)

ZABORRA

Zaborra sortzen duenak atera beharko du zaborra horretarako Altzagan prestatutako dagoen zabor bilgunera eramanez. Zabor guneko txartela lokalean utziko da.

BESTELAKOAK

- Herriko dinamikan parte hartzea eskatzen da.

1. Bilera: Urteko lehen hiruhilekoa izango da eta bertan, udalarekin urtean zehar hainbat ekintzetan parte hartzea adostuko dute. Beraien nahiak eta konpromezuak azaltzeko bilera izango da.

2. Bilera: Kurtso hasieran (abuztua-iraila) izango da eta bertan, jaien inguruan hitz egiteko aukera izango dute. Jaiei begira zein ekintza nahi dituzten eta beraiek zer antolatzeko prest dauden azaltzeko aukera izango dute.

- Erabilpena desegokia izan delako bizilagunek, gurasoek edo herritarrek kexatzen badira, Udalak neurriak hartuko ditu.

- Zerbitzuaren arauetako bat hausteak zerbitzua erabiltzeko aldi baterako edo betirako debekua ekar dezake, arau-haustearen larritasunaren arabera.

ARAU HAUSTEEI DAGOKIEN ZIGORRAK

Arau hausterik emanaz gero, erabiltzaileak eta Udal taldea elkartuko dira eta arau haustea aztertuko dute, elkarrekin bere larritasuna erabakitzeko eta ondorioei buruz hitz egiteko. Honako hauek izan daitezke:

ARAU HAUSTE MOTA	ZERGATIA	ONDORIOA
Arau hauste ARINA	Zehaztu gabe	Jakinerazpen bat izango du
Arau hauste LARRIA	Bi arau hauste arin, errespetu falta, kalteak egitea, arauak ez errespetatzea	Gazte- lekua kide izateari uztea eta eragindako kalteak ordaintzea
Arau hauste OSO LARRIA	Gazte lekuan kalte larriak eragitea, garrantzizko sesioak eragitea	Gazte lekuan sarbidea galaraztea eta eragindako kalteak ordaintzea

Altzagan 2023ko otsailean

Alkatea.